NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

6871

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 17koa, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariarena, azaroaren 21eko 234/2000 Dekretuaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. Dekretu horrek sustapen eta garapen laguntzak arautu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren menpeko eremuetarako.

2008ko maiatzaren 27an Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko apirilaren 15eko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (99. zk.), 2008ko ekitaldiko deialdia egin duena azaroaren 21eko 234/2000 Dekretuak aurreikusi dituen laguntzetarako. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren menpe-menpeko eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu ditu.

Lehen aipatutako aginduaren hirugarren ebazpenzatiak xedatutakoarekin bat etorriz deialdiko laguntzak finantzatzeko bideratu diren kredituek 3.038.628 euro jotzen dute. Horietatik, 788.628 euro 2008ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.250.000 euro 2009ko konpromiso-kredituari. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarri den kredituaren arabera. Bestetik ere, agindu beraren 2. idatz-zatiak zehaztutakoaren arabera, deialdi honen kontura eman beharreko laguntzen kopuru osoak ez du esandako aurrekontu-kontsignazioa gaindituko, ezta -indarrean dagoen legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenaren arabera- aurrekontuetan ezarritako kopuru hori eguneratzearen ondorioz ezartzen den kopurua ere. Ematekoak diren laguntzen zenbatekoa aldatuz gero edo laguntzen zenbatekoa agortzen bada, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bitartez jakinaraziko da, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

Horren harian, Landa Garapeneko Zuzendaritzak, egin beharreko izapideak egin ondoren, laguntzetarako kreditu propioen zenbatekoari 1.606.500 euro gehitzea erabaki du. Kopuru horretatik 1.006.500 euro 2008. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 600.000 euro, 2009rako konpromiso-kredituari.

Gehitze horren ondoren, 2008ko ekitaldian emango diren laguntzek 4.645.128 euro jotzen dute. Kopuru horretatik 1.795.128 euro 2008ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta 2.850.000, berriz, 2009ko konpromiso-kredituari.

Hori dena kontuan izanik, honakoa

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

6871

RESOLUCIÓN de 17 de noviembre de 2008, del Director de Desarrollo Rural y Litoral, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos destinados a la financiación de la convocatoria de ayudas realizada al amparo del Decreto 234/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan las ayudas de promoción y desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Con fecha 27 de mayo de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 99 la Orden de 15 de abril de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en el Decreto 234/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan las ayudas de promoción y desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El resuelvo tercero de la Orden establece la cantidad destinada a la convocatoria que asciende a la cantidad de 3.038.628 euros, de los cuales 788.628 euros corresponden a crédito de pago del ejercicio 2008 y 2.250.000 euros a crédito de compromiso para el ejercicio 2009, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo, el apartado 2 del mismo precepto establece que el volumen total de las ayudas a conceder con cargo a la convocatoria no podrá superar la citada consignación presupuestaria o la que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria prevista en la legislación vigente. En el caso de existir variación en el importe total de ayudas a conceder o en el de haberse agotado dicho importe global, se dará publicidad mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural ha acordado, previa la realización de los trámites oportunos ampliar en 1.606.500 euros los recursos económicos de la convocatoria. De dicho importe 1.006.500 euros corresponden a crédito de pago para el ejercicio 2008 y 600.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

Como consecuencia de esta ampliación, la cuantía total autorizada para la convocatoria asciende a la cantidad de 4.645.128 euros de los cuales 1.795.128 euros corresponden al ejercicio 2008 y 2.850.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

En virtud de lo expuesto,

EBATZI DUT:

Azaroaren 21eko 234/2000 Dekretuaren itzalpean Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren menpemenpeko eremuetako azpiegituretarako eta garapenerako ematen diren dirulaguntzetarako deialdia (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko apirilaren 15eko Agindu bidez egindakoa) finantzatzea helburu duen kreditua 1.606.500 eurotan handitu dela argitara ematea. Horietatik 1.006.500 euro 2008ko ordainketa-krediturako dira, 600.000 euro 2009ko konpromiso-krediturako. Horrela 2008 ekitaldirako diru-baliabideek 4.645.128 euro jotzen dute guztira. Horietatik 1.795.128 euro 2008ko ekitaldiko ordainketa-kredituak dira; 2.850.000 euro berriz, 2009ko ekitaldiko konpromiso-kredituetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 17a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.

RESUELVO:

Dar publicidad al incremento de los recursos económicos destinados a la convocatoria recogida en la Orden de 15 de abril de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en el Decreto 234/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan las ayudas de promoción y desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la cuantía de 1.606.500 euros de los cuales 1.006.500 euros corresponden a crédito de pago para el ejercicio 2008 y 600.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009. Así, la totalidad de los recursos económicos asciende a la cuantía de 4.645.128 euros de los cuales 1.795.128 euros corresponden al ejercicio 2008 y 2.850.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de noviembre de 2008.

El Director de Desarrollo Rural y Litoral,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.